

**ZUMAIA LANTZEN SA.ren
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

60ZK-KO AKTA

ZUMAIA LANTZEN SA.ren Administrazio Kontseilua ZUMAIAn bildu da, bi milako ekainaren 12an.

BERTARATUAK:

Lehendakaria:	Rikardo PEÑA KINTELA
Batzarkideak:	Felipe GUTIERREZ SERVAN Arantxa GAJATE TELLERIA Asier ESNAL ALBIZU
Idazkaria:	Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

Bilerara etorri dira, Gonzalo Torre Oleaga, hitza bai, baina botorik ez duen zinegotzia, Luis Javier Alvarez Yeregi zinegotziaren ordezkoa; Luziano Paguegi, udal arkitektoa; Tomas Eizmendi eta Jose Ramon Estomba ESARBE SA.ko ordezkariak.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO KONTSEILUKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA (00/04/17ko 59zk-ko akta)

Akta irakurri eta horri buruzko aipamenak egin ondoren, aho batez onartu zen, zuzenketarik egin gabe.

2.- 2000ko JARDUERA PLANAREN EGOERA

ESARBE SA.ko ordezkariak promotzioen egoeraren berri eman du, gutxi gorabehera, aurreikusitakoa dela adieraziz, ondorengo gai hauek azpimarratuz; gasa, zuntz optikoa, lur-jausien aurka babesteko sareak, egiten ari diren linea elektrikoak eta 32.HGAko A-7 lurzatian egiten ari diren luerauzketak.

Luerauzketa hauek, lur-harriak bere obretan erabiltzeko interesatutako kontratista ari da egiten (Amenabar Eraikuntzak), eta aukera on hau aprobetxatuz berarekin hitzartu da, Zumaia Lantzen SA.k indusketa eta kamioian kargatzearen azalpenean 200 edo 150 pezeta/m³ koa ordainduko duela bakarrik, kontratistaren kontura izanik garraioa, hondakindegia etabar. eta lur arruntean edo landare-lurrean izatearen arabera, sasiak kentzea, etabar, ...hurrenez hurren.

Paguegi jaunak esan zuen, I-H parkean, 3.Sektoreko eraikinen artean, leku libreen hirigintza proiektua oso aurreratua dagoela.

3.- 1999 EKITALDIKO KONTUEN AURKEZPENA. ONARTZEKO PROPOSAMENA BATZAR NAGUSIARI (Udal Plenoa)

Aurkeztutako kontuak eta kontu-ikuskaritzaren txostena aztertu egin dira (kontu-ikuskaria, Ignacio Maria Uzcudun Guruzeaga), horren zenbait puntu aipatuz eta argituz, bereziki 4. 5 eta 7.zenbakiak. Azkenengo 7.puntu honi dagokionez, adierazi behar da, Iberdrolak sinatutako agiri horretatik ondorioztatzen den bezala, 115.000.000 pezetako kalte-ordainketa barneratuta dagoela onartutako 125.760.446 pezetetan. Bestalde, kalte-ordainketa 115.000.000 pezetako kopuruak ez du BEZik sortzen.

Kontseiluak erabaki zuen bere oniritzia ematea aurkeztutako kontuei eta Akziodunen Batzar Nagusian eraturako Udal Plenoaren onarpena aurkeztea.

4.- BESTE ZENBAIT. ESKARI-GALDERAK

Udal Ondararako Lurzoru Erreserbarako Proiektuaren Behin-Betiko Onarpena Plenora eraman behar dela gogorarazi ondoren, 3.Sektorea eta Otorako Planaren artean koka daitekeen pilotalekuaren proiektu berriak eduki ditzaken ezaugarri eta baldintzei buruzko iritzi-trukaketa bat eman zen.

Pilotalekuak luzea izan beharko luke, zestako espezialitateetarako edukiera onarekin (700-800 leku) eta beste erabilera batzuetarako ahalbidearekin; kultur ekintzak, kontzertuak, bulegoak,... akustika onarekin. Kontuan izan behar da aparkalekuen gaia bere inguruan edo soto-erdisotoan, izaera enblematikoarekin eta itxura estetiko berezia, aldeko inpaktuarekin.

Komenigarritzat jo zen bisitak eta harremanak programatzea (Markinara, kirol honekin lotura duen pertsonekin, Pilota federazioa, ideien lehiaketa batean parte har dezaketen teknikariak etab.

Eta beste aztergairik ez zegoenez, akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera amaitutzat eman zen eta nik, idazkari honek, sinatu egiten dut lehendakariak ontzat eman ondoren.

O.E.
LEHENDAKARIA

IDAZKA